

# Nazio bat gara

POR Jokin  
Bildarratz



Nazio anitzez osatutako Estatu espainiarrak oraindik ez du onartu askotariko errealitateak daudela bere barnean, onartu gabeko errealitate juridiko politikoak

**S**ANTIYO eguna! Soineko zuria jantzi eta Villabonako amonaren etxera txipiroiak eta Tuteratik ekarritako meloia jatera joaten zirela gogorarazten dit emazteak, urtero, festa honen ospakizunetara Galiziara noala diodanean; *Fogar de Breogán* lurraldeetara, hango ereserkiak dion bezala.

Behar bada, denek ez dute herriko elizan Santiago beldurgarria ezagutu, bere kapa eta guzti, mairuen aurka borrokatzeko prest, baina seguru sasoi honetako gau luze eta epelek sortzen duten parranda amaigaberako gogoia askok eta askok ezagutu izan dugula. Dena dela, *meiga* eta Castelaoren lurraldera bisita egitea gustatzen zait egun honetan eta horrela egiten dut gure alderdiaren senatari bezala.

Aurtengoa, bezperatik, Ourensean dagoen Allariz herria izan naiz. Bertako lagunekin afari herrikoiria joan, norberak etxean egindakoa partekatuz, eta altxafueroak tarteko, gauaz disfrutatu dut. Giro ezin hobean eta sentsazio positiboekin, denok sentimendu berbera partekatu dugu: Herri bateko kideak sentitzen ginen, bakoitzak bere nor-tasun eta sentimenduaren jabe. Gehienak galiziarrek, jakina, baina beste batzuk, nire kasua tarteko, euskaldunak. Ilargipean, errekarren aldamenean, nazio zentzua das-tatu dugu bertako ereserkia kantatuz. Galiziako alkate asko ezagutzen ditut eta egun hauek animoak emateko aprobetxatu dut; datorren urtean hauteskundeak izango dituzte eta euren bizilagunen azterketa zuzena izango dute. Udal asko eta asko-egoera latzak bizitzen ari dira: finantziario eskasa, lur eremu oso zabalak eta gestio-natzeko eskuduntzarik gabe. Madrilgo Gortee-tan onartu zen azkeneko Udal Erreformak ere kalte handia egin die. Azken batean,

Alderdi Popularreko Gobernuarekin kexu dira.

Aspaldiko garaletatik gaur egundaino jende askoren helmuga izan da Galizia: *Izarren bidea* eginez, *Esnearen bidea* jarraituz, Finisterre edo munduaren amaiera ikusteko eta, nola ez, azken mendeetan Santiago, hamabi apostoluetako bat, lurperatuta dagoen izen bereko hiria bisitatzea. Baina, nola aldatu diren kontuak, orain ez dugu ezta jai hartzen ere egun honetan, urte batzuetan behintzat. Gure herritarren gehien-goaren oporraldia San Inazioetan hasten da. Gure lurraldean edozein bazterrak Santiyo izena eraman, eta gure artean hainbat Xanti, Jakoba edo Yago izateaz gain, Euskal Herriak beti izan du lotura munduaren amaiera tokia omen zen eremu horrekin. Galiziar jatorriko zenbat familia ezagutu ote dugun gure herrietan, euren etxea utzi eta gure fabrika edo itsas portuetara lanera etorritakoak. Bertan izan naizela, tolosarrak eta beste hainbat herrietakoak etorri zaizkit agurtzera, euren ikurrifia erakutsiz, Euskal Herria eta Galiziaren eskuak lotuta doazela adierazi nahian.

**Horieta** asko hara eta hona ibiltzen ziren udaro: *Allariztik Eibarrera*, edo *Oartzunetik Pontevedrara*; lepo zihoa tren hartuta, ordu amaigabeak irauten zituen bidaia luzean -hori katenaria askatzen ez zene-tan-, baina oporraldian beraien herrietara itzultzen ziren, egun batzuetan behintzat, epanadaz, pulpeiraz, olagarroaz eta quei-madaz gozatzeko, baita bere adiskide eta familiartekoez eta bertako hizkuntzaz ere, noski.

Egunotan, gure hizkuntza zaharren man-tenetze lanetan aritzen direnekin bat egiteko aukera ere izan dugu. Xarmangarria da hizkuntzak eta hiztun kopurua haziz doaze-la ikustea, zailtasun eta arrisku handiak gaituzte Kantauri itsasoaren bi aldeetan. Santiago eguneko ospakizunetan galegoa izan da erabili den hizkuntza bakarra, nor-maltasun osoz; ereserkiak dioen moduan: *Os bos e xenerosos a nosa voz entenden e con arroubo atenden*.

Hizkuntza propioez gain, biok ere itsal-deak eta landa guneak ditugu, baita herri eta hiriak; bi naziook, Galizia eta Euskadi, Atlantikoaren ertzetatik mundura begira gaude. Jose Antonio Agirrek Europako herrien batasuna zuen amets, ideia hau asmo hutsa besterik ez zenean, eta saiatu